



2011KO AZAROAREN 24KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako urriaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpi terdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu estensoro, Felix Urkola Iriarte, Inazio Estensoro Eskisabel, Ane Irastortza Izagirre, Milagros Madrazo Rada eta Juan Manuel Serna Portugal.

Maialen Aldasoro Aramburu zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Bilkurari hasiera eman ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

II.- ZERO ZABOR TALDEAK ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETARI TARTEJARRITAKO ALEGAZIOA.-

Gipuzkoako Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkartek, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Nagusian AS/G/16178/2011 kodea eta I.F.K. kodea G750444-95 duenak, alegazioa aurkeztu du udal honek ordenantza fiskalak aldatzeko hartutako erabakiaren aurka. Alegazioak autokonpostaje bidez hondakin organikoa autokudeatzen duten herritarrei, hiri hondakinen tasan, %40ko hobaria ezartzea eskatzen du.

Alkateak esaten du bere taldeak (Bildu) alegazio hau ez duela onartuko. Gehitzen du oraindik ez dagoela tarifikazio sistemarik sortuta eta besteekiko alderaketa sortuko lukeela. Gehitzen du etorkizunean jartzearena aztertzea posible ikusten dutela baina gaur egun ezetz.

Albisu zinegotziak (EAJ) esaten du beraiek ere gauza bera pentsaten dutela. Egia dela autokonpostajea ona dela baina beste sistemak ere hor daudela eta hobariak arautzeko garaian ikuspegi orokor batetik egin behar dela. Gehitzen du autokonpostajea egin gabe materia organikoaren gaikako bilket egiten dutenak ere ahalegina egiten dutela eta hobariak horiei ere aplikatu beharko litzaiekela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du beraiek ere ados daudela hemen azaldutako jarrerekin eta gehitzen du erreziklaje lan garrantzitsua ari dela egiten eta bide horretatik jarraitu behar dela eta hobariena arautzen joan beharko dela.



Gaia bozketan jarri eta osoko bilkurak, bertaratutako guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Alegazioa atzera botatzea.
- 2.- 2011ko urriaren 27an behin-behingo onartutako ordenantza fiskaletako aldaketak, behin-betiko izaera hartuko dute, 2011ko abenduaren 10 baino lehen beste inolako erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez bada.

III.- PSE-EE-K HIRI HONDAKINEN KUDEAKETAREN INGURUAN AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

2006an, konponbideak bilatzen urteak eman ondoren, Gipuzkoako hondakin komunitate guztiek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuten Hondakinen Partzuergo bat sortzea, horrelako erakunde guztiak elkartzeko, 2002ko Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Integralerako Planean hiri hondakinak kudeatzearen gaineko diagnosian bat zetozenez gero, batez ere etorkizunean horiek kudeatzeko eredia definitzeari dagokionez, tratamendurako jarraibideak ezartzen dituelako hondakinak murriztu berrerabili eta birziklatzeren hastapen hierarkikoak. Eta alderdi horretan egin dituzte ahaleginik handienak, hain zuzen ere, bai erakundeek bai herritarrek, Gipuzkoan Espainia osoko birziklatze kotarik handienak eskuratzearaino. Baina etxeko hondakin motak biltzearen gaineko eztabaida sasikoa da haren bitartez erakutsi nahi izanez gero ez direla beharrezkoak aurreko ahalegin horiek guztiak egindakoan geratzen diren gainerako hondakinak suntsitzeko plantak edo, bestela esanda, "atez ate" deritzon sistema herritarrentzat garestiagoa, osasunaren galgarriagoa eta deserosoagoa da. Eta, gainera, ez du ezer konpontzen erraustu behararren aldetik.

Ondorioz, akordioa izenpetutako erakundeek onartzen zuten aipatu politikak abian jartzeko beharrezko azpiegiturak eraikitzea; hain zuzen ere, etxeetan eta sorgune handietan bereiz jasotako zati organikoa konpost bihurtzea eta "hondarra" deritzon zatia energia bihurtzea erraustearen bidez, hau da, saihestu, birziklatu edo konpostatu ezin izan diren hondakinak. Bien bitartean, gainera, aldi baterako konponbide bat definituko zen, eskualdez gaineko zabortegei kontrolatuetan tratatu ahal izateko, errauste azpiegiturak amaituta egon arte. Nabarmendu beharrezkoa da azken 4 urteotan Gipuzkoan indarrean diren zabortegeiak handitzeko lanak egin dituztela, hain zuzen ere, Urtetan, Sasietan eta Lapatxen. San Marko zabortegea behin betiko ixtea ere erabaki zen, Donostia-Beterriko hondakinak, solidaritatez, gainerakoekin batera botatzeko; nahiz eta egunero-egunero geure lurraldean sortzen den zabor kantitateak isurketa ahalmena gairatzen duen, ondorioz urtean 25.000 tona Bizkaiko Igorreko zabortegeira eramane beharra izaten dela. Eta beharrezkoa da ondo gogoan izatea ezingo direla egungo zabortegeiak gehiago handitu. Beraz, zaborrekiko jokoa premia handiko arazoa da.

Halaber, partzuergo biltutako erakundeek Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoa eta hura kudeatzeko baltzua aurreikusten zituzten Gipuzkoako toki administrazioek hiri hondakinak kudeatzeko behar gero eta handiagoa administrazioaren aldetik modu bateratu eta eraginkorrean antolatzeke formularik egokientzat, abiaburu hartuta hasierako hiri hondakinak kudeatzeko ardura eta beharkizuna legez udalei dagokiela onartzea, lurralde mailan partzuergoari eskualdatu arren.



Bilbadura berri horren oinarriak ziren lurralde arteko elkartasuna eta aldeek elkar onartzea eta fidagarritzat jotzea, eta haien arteko finantza eta ekonomi lankidetzarekin osatzen zen. Horren harroin, Gipuzkoako Foru Aldundiak 378 milioi euroko inbertsio plan batetik % 33 ordaindu behar zuen, itzuli beharrik gabe. Gainontzekoak udalerrien partzuegoek ordaindu behar zituzten, trataturiko tona bakoitzeko aldian-aldian tarifa bat ordainduta. Tarifaren barruan 20 urterako finantzatzeko kostuak sartuta daude.

Egia esan, gaur egun, Gipuzkoako Hondakinen Partzuegoak dagoeneko 46 milioi euro ordaindu ditu; eta, lanen erritmoa kontuan, hilean-hilean milioi bete euroko lan eginen egiaztagiriak ordaintzen ari dira. Diru horretatik guztitik, Gipuzkoako Foru Aldundiak dagoeneko 26,5 milioi euro aurreratu ditu, baita 10 milioi erabili ere Banco Europeo de Inversiones erakundearekin eta banketxe pribatuekin izenpeturiko 263 milioi euroko kreditutik. Gainera, gipuzkoarrek beste 9,5 milioi ordaindu dituzte, azken urteotan zabor tasetan izandako goeren ondorioz.

Kontuan izan behar da, gainera, kreditu erakunde horiek izenpetutako finantzatzeko **proiektu finantzaketa** dela; beraz, ezin da inondik inora erabili hura ematean finantzatzeko helburu zirenez bestelako helburu batzuetarako. Bestela esanda, inbertsio plana aldatzea ondorioztatzen duen kudeatze planetan edozer aldatzeak kreditu erakundeen konpromisoa amaitutakotzat jotzea dakar ondorio. Beraz, klausulak betearaztearen ondorioz, maileguan utzitako dirua, finantzatzeko kostuak eta interes moten estaldurak eskatzeko bidea izango lukete.

Azkenik, nabarmendu beharra dago orain arte eginiko lanen garrantzia: Donostia-ko Zubieta aldean kokaturiko Hondakinak Gestionatzeko Gipuzkoako Zentroko sarbideak eta betelanak; Lapatzeko konpost plantak; Urteta, Sasieta eta Lapatzeko zabortegeak handitzea; transferentzi estazioak...Baita aurretratatamendua eta erraustegia eraikitzeke kontratuak bertan behera uztearen kostu handia, Hondakinak Gestionatzeko Gipuzkoako Zentroko gainerako betelanak edo desjabetze espedienteak gerarazi eta lurzoruak jabeei itzultzearen gastuak ere. Kontzeptu horiek guztiek eta Partzuegoak 2014a arte bereganaturiko ordaintzeko obligazioek guztira 159.557.000 euroko aurrekontua egingo lukete lanak geraraztearen aldetik, partzuegoko erakundeek inoren ordezkari ordaindu beharko luketelarik, bakoitzak asanbladan duen ordezkariaren arabera.

Aurreko guztiarengatik, PSE-EEren udal-taldeak, ondorengo mozioa planteatzen du:

Lehena.- Lazkaoko Udalak erabateko atxikimendua erakusten die Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Integralerako Planean jasotako planei eta aurrerapen dokumentuei; baita ere, tratamendu plantetarako inbertsio planei, egutegiari eta finantza planari, zaborrak tratatzeko planak kokatzearen gaineko lurraldearen arloko planaren arabera.

Bigarrena.- Lazkaoko Udalak erabat gaitzesten du hondakinak kudeatzeko xedaturiko planak edozergatik gerarazteari. Hartarako, oinarri hartzen ditu onarturiko konpromisoak eta, ustez, zor handiegia lepoan hartu eta ziurgabetasunean egon beharra izango dela, gure udalerriko hiri hondakinen gestioaren moduko auzi garrantzizko bat zintzilik utzita.

Hirugarrena.- Lazkaoko Udala Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Integralerako Planean eta haren aurrerapen dokumentuan jasotako tratamendu planak eraikitzeke lanak amaitu bezain laster udal zabortegei guztiak ixtearen alde dago. Halaber, erabakita dago



berreskura daitezkeen hondakin zati guztiak saihestu, birziklatu eta berrerabiltzeko politikei lehentasuna ematera, halakoak zertan errausterik ez izateko. Era berean, Udalbatzak apustu egiten du zaborra kaleetan kokaturiko edukiontzi itxien bidez jasotzearen alde, etxeko hiri hondakinak jasotzeko metodorik egokiena delakoan.

Albisu zinegotziak (EAJ) esaten du beraiek mozioarekin ados daudela. Esaten du baita ere une honetan azpiegitura hau egiten ari den bitartean goierriko herriek alkartasuna adierazten ari direla, izan ere San Markoseko zabortegia itxita egonik Sasieta ari da jasotzen haien zaborrak. Esaten du baita ere errefusa erretzeko azpiegitura hau egiten ez bada, hemendik hiru urtera, Sasietako zabortegia ixten denean arazo larria izando dugula. Esaten du baita ere errefusa erretzeko azpiegitura hori ez bada egiten hemendik hiru urtera zabortegi berria iriki beharko dela eta beraz orain dela erabakia hartzeko garaia.

Garmendia zinegotziak (Bildu) esaten du mozio honetan hondakinen kudeaketaren modurik egokiena zein den esaten da baina egiten diren baieztapeni itsatsitako inolako azterketarik ez dagoela eta esaten da atez ateko bilketa garestia eta osasunarentzat kaltegarria dela esaten da eta deserosoa dela ziurtatzen du; mozioak baita ere esaten du edukin ontzi itxien aukera dela onena eta Lazkaoko Udalak hori onartzea nahi du. Eta esaten du beraien ustez ikusi egin beharko dela horrela den ala ez, beraiek ez dakitela horrela den ala ez baina probatu eta ikusi egin beharko dela; esaten du baita ere udal hauteskundeak egiteko bi hilabete falta zirela, herritarrek zer erabakiko beldur, gipuzkoarrantzat 20 urtetarako hipoteka suposatzen duen kontratua izenpetu zutela finantza erakundeekin bere esku utziz hondakinen kudeaketarako hartu diren neurrien bermea. Eta esaten du guzti horregatik ezezkoa esaten diotela mozioaren lehenengo puntuari

Gaiaz zabal eztabaidatu ondoren bozketara jartzen da, ondorengo emaitzarekin:

- aldeko botuak 6, (EAJ, PSE-EE)
- aurkako botuak 6, (Bildu)

Berdinketa honen aurrean alkateak kalitatezko botua erabiltzen du eta ondorioz aurkako botuak 7 dira eta beraz mozia atzera botatzen da.

IV.- EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDEKO MOZIOA.-

Moziok honela dio:

"Une historikoa bizi dugu Euskal Herrian. ETA erakundeak borroka armatua behin betiko uzteko konpromisoarekin, ziklo politiko berri bati hasiera emateko oinarria sendotu da. Azken hamarkadetan bizi izan dugun konfrontazio armatua behin betiko ixteko aukera eta eztabaida demokratikoan oinarritutako eskenatokiaren ateak ari dira irekitzen.

Gernikako Akordioan hitzartutakoari jarraiki, eta Aieten Nazioarteko Komunitateak zabalduetako mandatuaren norabidean, ETArek erabakiak, gatazka politikoa, bake bidera eramateko aukera baten aurrean jarri gaitu. Normalizazio politikora bidean eman beharreko urratsetan, besteak beste, euskal preso politikoen eskubideen errespetua bermatu beharko da. Gernikako akordioaren hitzetan, ezinbestekoa da, "Euskal preso politikoen aurka aplikatzen den espetxe-politika etetea, konfrontaziorako estrategia gisa erabili da-eta. Era berean, honako neurri hauek hartzea, amnistiarako bidean lehen urrats moduan, gatazka politikoak eragindako preso eta iheslari bat bera ere egon ez dadin: Preso guztiak Euskal



Herrira ekartzea, dispertsioarekin amaituz, Gaixotasun larriak dituzten presoak aske uztea, Epaituak izateko zain dauden preso prebentiboei behin-behineko askatasuna ematea, Legeak ezarritakoak beteak dituzten zigortutako preso guztiei, baldintzapeko askatasuna ematea, Legeak jasotzen dituen espetxe-onurak aplikatzea, murrizketarik eta arbitrariotasunik gabe eta azkenik, Zigorra betetzeko muga berrogei urtetan ezartzen duen legedia indargabetzea”.

Euskal gizarteak urte asko daramatza, preso politikoen eskubideen bermeak eskatzen. Urteak, presoek aurkako neurriek senideengan dituzten ondorio larriak salatzen. Urteak, estatu espainiar zein frantsesari, beren legea betetzeko eskatzen.

Munduan eman diren prozesu politiko desberdinetan bezala, Euskal Herrian ere preso politikoen errealitateari konponbidea eman behar zaio. Era berean, konponbide politikoaren baitan, presoek ere parte izan behar dutelarik. Ziklo bat behin betikoz itxi eta etorkizunean aske egingo gaituen ziklo berria indarrez irekitzeko.

Azken asteetako hitz eta ekintzei begira jarriz, Madril eta Parisetik ez da egoera berriaren tamainako urratsik eman. Presoen dispertsioak bere horretan jarraitzen du. Senitartekoen milaka kilometro egiten jarraitzen dute. Hamarnaka euskal presok, Parot Doktrinaren ondorioz, hil arteko zigorra betetzen jarraitzen dute. Gaixotasun larriekin dauden hainbat presok baldintza kaxkarretan jarraitzen dute. Egoera hau errotik aldatzea eta atzerapenik gabeko urratsak ematea ezinbestekoa deritzogu.

Hori guztia kontuan hartuko, honako adierazpen hau aurkezten dugu, Lazkaoko Udaleko Osoko Bilkura honetara, eztabaidatua eta onartua izan dadin:



- 1.- Udal honek, bizi dugun aukera historiko honen aurrean, Euskal Preso Politikoen eskubideen errespetua eskatzen du. Hala nola, besteak beste, dispertsioaren amaiera eta preso guztien Euskal Herriratzea, gaixotasun larriak dituzten presoek askatzea eta zigorra beteta dutenen askatzea.
- 2.- Udal honek datorren urtarrilaren 7an Euskal Preso Politikoen eskubideen alde burutuko den Manifestaldiarekin bat egiten du. Baita abenduaren 31an 13:00tan Lazkaoko plazan egingo den elkarteratzearekin bat egiten du.
- 3.- Norabide horretan eta mobilizazio horren harira, abenduaren 16an udal honetako hautetsiek baraua egin eta eguerdiko 12tan kontzentrazioa burutuko dugu.
- 4.- Gure udalerriko eragile guztiei deialdia luzatzen diegu urtarrilak 7ko mobilizazioarekin bat egin eta beronen eskutan dagoena egin dezaten bere ekimen kultural, sozial edo kirolaren alorrekoen ordutegiak berau indartze aldera kokatu ditzaten.
- 5.- Herritarrei deialdi zabal eta anitza luzatu nahi diegu ezberdintasun politiko guztien gainetik giza eskubideen alde urratsa eman eta herri honek inoiz ezagutu duen mobilizaziorik handiena denon artean osatu dezagun.”

Serna zinegotziak (PSE-EE) mozioa nork aurkeztu duen galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio Bildu taldeak aurkeztu duela.

Serna zinegotziak esaten du orain bi aste eta aurreko legegintzaldian askotan aurkeztu izen direla honen antzeko mozioak eta beti eztabaida bera izen dela. Esaten du baita ere mozioan preso politikoak esaten dela baina hemen ez dagoela preso politikorik, talde terrorista bateko partaideak direla eta gauzei bere izenez hotsegiten hasteko garaia badela. Esaten du baita ere eskubideak eskatzerakon, egien diren proposamenak alde batekoentzat bakarrik egiten direla eta besteetaz ahaztu egiten garela. Esaten du baita ere guztiontzako proposamenak egin beharko genituzkela eta bestela alderdi bakoitzak bere proposamenak egin behar baldin baditu, ez genituzkela administrazioak nahastu behar horretan. Eta hemen berriz berriro ere horretan gaudela, alde batekoentzako proposamenekin. Bukatzen du esanez, ondorioz, guzti honengatik, beraien botua aurkakoa izango dela.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du puntu askotan PSOekin ados daudela. Esaten du baita ere gai hau orain dela bi pleno aztertu zela eta orain berriro ekarri dela eta ikusten dela goitik behera datorren konsigna bat dela. Esaten du baita ere lehen esan zien bezala, pakete bide horretan biltzen hasi behar zirela, taldeen artean hitzegiten eta horri baieztaka erantzun ziotela, baina gaur aurkezten duten mozioa honetan, berriro ere, alde batekoetaz ari direla eta Besainen hil zituzten bi ertzainetaz ez dela hitzegiten. Eta gehitzen du, beraiek nahi dutela eta itxaropentsu daudela herrian gauza horiei buruz hitzegiten hasteko. Esaten du baita ere gauzak goitik behera etorriko direla gero ere baina herri honetan gauzak behetik gora ateratzen has gaitezen eskaria egiten du. Eta bukatzen du esanez horrela ez bada alferrik etorriko direla beraiengana adostasun eske, eta beraz mozioaren aurka bozkatuko dutela.

Mendia zinegotziak (Bildu) esaten du bere garaian ezker abertzaleak honelako mozio asko aurkeztuko zituela behar bada, baina orain beste garai historiko batean gaudela eta Bildu dela mozio hau aurkezten duena. Esaten du baita ere orain bi hilabete beste mozio bat aurkeztu zutela eta egia dela aldarrikapenak berdina direla eta alde bakarra urtarriaren 7an egingo den manifestaldiari atxikipena dela. Esaten du baita ere mozio hau epe batzuek gainean dauzkagulako datorrela, deialdi batzuek eginda daudelako, abenduan hainbat ekintza antolatua daudela eta urtarrilean manifestaldia. Esaten du baita ere euskal preso politikoak direla ulertzen dutela, gatazka politiko baten ondorioz preso daudenen eskubideen aldeko mozioa dela, eta denak ez direla E.T.A.ko presoak ez da gutxiago ere.

Gaiaz zabal eztabaidatu ondoren osoko bilkuraren bozketara jartzen da eta emaitza ondorengo da:

- Mozioaren aldeko botuak 6 (Bildu)
- Mozioaren aurkako botuak 6 (EAJ, PSE-EE)

Berdinketa honen aurrean alkateak kalitatezko botua erabiltzen du eta ondorioz aldeko botuak 7 dira eta beraz mozioa onartu egiten da.

V.- EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN EGUNAREN AURKAKO EGUNAREN AURREAN MOZIOA.-

EUDELeK bidali duen deklarazio instituzionalak honela dio:



Azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, aurten, berriro ere, gazteriarengan jarri nahiko genuke arreta. Izan ere, indarkeriaz hitz egiteko beharraz gainera, errespetua, askatasuna, autonomia eta berdintasuna oinarri dituzten harreman afektibo eta sexualak eraikitze beharra ikusten dugu.

Erakundeek, hedabideek eta gizarteak oro har bukarazi beharreko arazo sozialetzat jotzen da emakumeenganako indarkeria. Hori azken urteotan erdietsitako lorpen garrantzitsua izan da. Halarik ere, askotan, indarkeria mota hori egoteko arrazoia ez dago ezagutzerik, ezta haren sustraiak zeintzuk diren ere, edo, besterik barik, ez da horren gainean informatzen. Askotan, "gaitz" hitza erabiltzen da hura definitzeko, jasan beharreko ez-behar bat izango balitz bezala, inolako arrazoirik gabe eta horren erantzule izango ez bagina bezala. Gizarteak neska gazteen kontrako indarkeria kasu ugari ikusten ditu txundituta, eta ez daki zer ari den gaizki egiten, gailentasun matxistako ereduak izateko oraindik nagusi gazteen arteko harremanetan.

Testuinguru horretan, ezinbestekoa da begirada zabaltzea, emakumeenganako indarkeriari buruzko ikuspuntu globala izatea, tratu txar fisikoak eta hilketa matxistak baino haragoko elementuak barne hartzeko eta gizartearen esparru guztietan mantentzen diren desberdintasunen adierazpen basatitzat jotzeko. Horrenbestez, ezinbestekoa da ulertzea ezin daitekeela emakumeenganako indarkeriaren kontra borroka egin, gizonezkoen eta emakumezkoen ereduak sakon eraldatu barik, ez eta gizon eta emakumezkoen harreman afektibo eta sexualak eraikitze modua ere.

Prozesu horri ekiteko, beharrezkoa da erreferente positiboak edukitzea. Xedea ez da gazteriak egungo eredu kaltegarriak antzematea bakarrik, baita maitasuna eta sexualitatea modu askeagoan eta berdintsuagoan bizitzen ikastea ere. Horretarako, aurtengo kanpainaren lema Beldur Barik Jarrera da. Gizarte berdina goa eraikitzen laguntzen duten eguneroko jarrera txiki horiek landu nahi ditugu gazteekin. Neskekin, euren autonomia eta jabetzua sendotzen dituzten jarrerak landu nahi ditugu, izan ere, horiek mugak gainditzeko eta estereotipo sexistak apurtzen lagunduko diete. Mutilekin, berriz, matxismoa deslegitimizatze jarrerak landu nahi ditugu, baita maskulinitasun hegemonikoaren ereduak aldatzekoak ere.

Horren guztiaren jakitun, Udal honek

ONARTU EGITEN DU KONPROMISOA, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, oso eta koordinatua garatzeko, arreta berezia jarriz neska gazteen gain, eta, betiere, euren partaidetza aktiboarekin.

Horretarako, ekimenak abiaraziko ditu neskei beharrezkoak zaizkien baliabideak emateko, euren jabetzua sendotu dezaten eta euren identitatea eraikitze eta berdintasun harremanak ezartzeko beste eredu batzuk aurki ditzaten. Onartu egiten du gazteek parte hartzea jarrera sexistak zalantzan jartzeko eta matxismorik gabeko jarrera hartzeko. Horretarako, ikusten dituzten erasoek kontra paper aktiboagoa izatera animatu behar ditugu neskek eta mutilak, bai eta desberdintasunak betikotzen laguntzen duten aurreiritziak eta estereotipoak antzematera ere.



Era berean, GONBIT EGITEN DIEGU herritar guztiei, eta bereziki neska-mutilei, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.

Irastortza zinegotziak (EAJ) esaten du alde daudela, eta berdintasun batzordean parte hartzen ari direla eta horretan jarraituko dutela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du beraiek ere alde daduela eta alde honetatik ematen diren urrats guztiak gutxi direla dirudenez eta kezkarria dela ikustea gazteetan dirudenez jokabide matxistan ematen direla baita ere, eta garrantzitsua dela kontzientzia-zioan lan egitea egunero.

Alkateak (Bildu) esaten beraiek ere alde daudela eta indarkeriari aurre egiteko politika integrala jarraituz mota ezberdinetako neurriak hartu beharko ditugula kontutan, besteak beste heziketan oinarritutako prebentzio neurriak, eraso baten ondorengo neurri asistentzialak eta erantzun soziala artikulatzeari begirakoak. Esaten du baita ere, konpromezua hartu nahiko luketela, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo osoa eta koordinatua garatzeko, hitzetik ekintzetara pasatuz, eta gonbita egiten dutela baita ere azaroaren 25ean, emakumearenganako indarkeriaren nazioarteko eguna dela eta, egiten diren ekintzetan parte hartzeko.

Guzti honen ondoren, gaia bozketan jarri eta osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, deklarazio instituzional hau onartu egiten du.

VI.- EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURUKO MOZIOA.-

Bildu taldeak aurkeztutako mozioak honela dio:

"Euskararen nazioarteko eguna dela eta, Udal Batzari aurkeztutako mozioa

Pertsonak, hizkuntzak eta kultura guztiak berdinak dira duintasunean. Guztiak behar dute berdintasunezko estatusa eta parekotasunezko egoera, mendetasunik gabe bizitzeko. Horretarako, hizkuntza bakoitzari dagozkion nagusitasuna eta iraunkortasuna bermatu behar zaizkio bere lurralde osoan.

Euskaraz bizi den Euskal Herria gauza ona da denontzat. Ez du arriskuan jartzen euskaldunaren erdara(k). Ezta gaztelania eta frantsesaren garapen osoa ere euren lurralde historikoetan. Espainiak eta Frantziak ordea, gaztelania eta frantsesa inposatzen dituzte Euskararen Herrian eta trabak jartzen, euskaraz bizitzeko. Traba politikoak, juridikoak, ideologikoak, kulturalak eta soziolinguistikoak.

Euskal Herrian ireki den aro politiko berri honetan, hizkuntz gatazka konpontzea, lehenatasunezkoa da. Hitz egin behar da hizkuntz asimilazioaz. Euskal Herrian gertatzen den gaztelania eta frantsesaren hedatze sozial izugarriaz. Bereizi behar dira, zein den hizkuntza horien zati onuragarria, -euskal herritarrentzat, euskaldunentzat eta Euskal Herriarentzat-, eta zein zati asimilagarria. Euskal Herriak du hitza eta erabakia.



Herritarrok gara euskara erabiltzeko eta Euskal Herri euskalduna berrosatzeko eragile, babesle eta berme. Horrenbestez, ezinbestekoa da herri gogoa indartzea. Euskararen alde egotetik "euskaraz bizi nahi dut"era pentsamendu aldatzea eta erdaraz egitetik "euskaraz egitera" portaera jiratzea eta eguneroko ohitura bihurtzea.

Beharrezkoa da gaurdanik, gure udalerrri honetan, euskarazko elebitasuna praktikan jartzea eta norabide horretan Udal honek ondorengo konpromisoak hartu eta deialdiak luzatu nahi ditu:

- 1.- Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du bere zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenen langileen euskalduntzea bultzatu eta bermatzeko.
- 2.- Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du bere zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenen langileen lehen hitza beti euskaraz izan dadin.
- 3.- Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du bere barne funtzionamendua euskaraz izan dadin.
- 4.- Udal honek udalerrri honetako euskal komunitateak dituen hizkuntza eskubide indibidual eta kolektiboak bermatze aldera, gure herrian eta atal zein arlo ezberdinetan, euskaraz bizitzeko eskubidea helburu duen plangintza integrala garatzeko konpromisoa hartzen du.

2011-12-03AN, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNEAN."

Madrazo zinegotziak (EAJ) esaten du beraiek ados daudela mozioarekin.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du 2010ean Eusko Legebiltzarrean mozio bat egon zela, alderdi guztiek onartutakoa, hizkuntza aniztasunaren eta Autonomi Erkdiegoan dauden hizkuntza ofizial guztien tratu berdinen aldekoa, eta euskararen asmoen altopen honen aurrean hizkuntza bat jarri nahi da bestearen ginetik. Gehitzen du arazo bat daukatela mozio honekin, izan ere alde batetik euskararen alde daude baina bestetik, eta esan duenarengatik, mozioaren aurka daude, eta horren aurrean abstenitu egingo da. Eta gehitzen duabestentzioa emango duela eta ez ezezkua ez duelako nahi beraiek euskararen aurka daudela interpretatzea nahi, eta abstentzio horrekin berak esan nahi dutena zera dela, euskara bai baina gaztelera ere bai.

Alkateak (Bildu) esaten du udal honek lehendik ere lan asko eginda daukala arlo honetan eta mozioan egiten diren eskabideak, hein handi batean, udal honetan betetzen dira gaur egun. Eta gehitzen beraiek ere bat egiten dutela mozioan eskatzen denarekin.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 11 botu (Bildu, EAJ), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE) mozia onartu egiten du.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Jendartetik PSE-EEren ordezkariari zuzenduz, presoen mozioaren gaian esandako gauza batzuen inguruko adierazpenak egiten dituzte eta PSE-EEko Serna zinegotziak adierazpen horiei erantzuna ematen die.



VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko bederatzia hogei gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

